

DAMIAN PEDROSA - Hernanin bizi den argentinarra-

“Argentinako krisia Estatu Batuek planifikatu dute”

■ Gainbehera 1975ean hasi zela dio Damianek, Videlaren diktadurarekin ■ Orain, gaizki zegoena are eta okerrago jarri da ■ Argentinan jendea etsia dago, irtenbiderik ikusten ez duela ■ Aspaldiko partez jendea kalera aterata da.

ARGENTINAKO irudi eta notiziek mundua aztoratu dute. Urrutitik ez da erraza izaten datorrena irentsi eta benetan pasa denaz jabetzea. Egoera ulertzen lagunduko digulakoan Damian Pedrosarengana jo dugu.


■ **KRONIKA:** Nondik norra uste duzu sortu dela Argentinako krisia?

DAMIAN PEDROSA: Oihartzunik haundiena orain izan du, baina, krisia aspalditik dator. EEBBk ondo planifikatu dute guztia. Munduko boterea mantentzeko bi helburu zituzten: Errusia eta Hego Ameriketa desestabilizatzea. Videlaren diktadurarekin hasi zen gainbehera. Garai hartan izugarritzko kanpo zorra egin zuen Argentinak, 50.000 miloi dolar pasa, eta inongo onura eta aurrerapenik sartu gabe; diru hori galdu egin zen. Zor horrekin erabat lotua bizi da Argentina, buelta eman ezinda.

■ **Jendea zein egoeratan dago?**

Jendea etsia dago, zer egin ez dakiela. Azken urteetan prezioek oso gora egin dute, baina, soldatek ez. Bikote batek hiru lan behar zituen, bizi ahal izateko. Orain, berriz, ia dena paralizatua dago, bai industria bai zerbitzuak...

Jendeak ezin du ahorratu duen apurra bankutik aterata, eta dolarretan oraindik eta nekezago. Jendeak dolarrak nahi ditu, inflazioari kontra egiteko. Pesotan gaur zerbait badaukazu, bihar agian batere ez. Dolarrak, ordea, ez du



Damian Pedrosak euskeraz garbi-garbi hitz egiten du.

baliorik galtzen.

Hori zerbait duenak, baina, miseria ere haundia da. Datu ofizialetan biztanleen % 40 pobrezian bizi da.

■ **Hango lagunek zer esaten dizute?**

Bi e-mail jaso berri ditut, bata lagun batena, eta bestea anaiarena. Hona etortzeko zer egin behar duten galdetzen didate. Garai batean exilio politikoa behar zen; orain berriz, exilio ekonomikoa.

Zerbait daukazunean alde egitea zaila da, baina, han gauzak gero eta okerragoa dijoaz eta irtenbiderik ikusten

ez denez, jendeak alde egin nahi du. Baina, alde egiteko aukera ere gutxi dute.

■ **Kanpoko enpresa askok inbertitu du Argentinan. Aberrastasunik ez al dute utzi?**

Hemen saldu digutena gezur haundi bat da. Han enpresak sartu dira, baina, diru gutxi inbertituta. Multinazionalak huskeria bat ordaindu dute; azpiegiturak, eta nahi duten guztia ateratzeko aukera izan dute, inongo kontrolik gabe. Gainera, gobernuak dena eman die, eta langileak ere nahi zuten kondiziotan eduki dituzte lanean.

HAMASEI URTE HERNANIN

Damian orain 51 urte jaio zen Argentinako Tucuman probintzian. Badira 23 urte handik alde egin behar izan zuena, Videlaren diktadura garaian, exilio bila.

Madrila joan zen lehenik, eta urte erdi pasata, Gasteiza. Filosofiako ikasketak izanagatik, ez zuen lortu Argentinatik tituloa bidaltzerik eta Hego Ameriketara bueltatu zen titulo bila, hain zuzen ere Ecuadorra.

Lau urte eta erdi egin zituen han eta titulo eta guzti bueltatu zen, Donostiako filosofia fakultatera. Hernanin jarri zen bizitzen.

1986a ezkerotzik Hernanin bizi da, eta bere hitzetan “dagoeneko hemengo” sentitzen da.

Hasiera oso gogorra izan omen zen, “Argentinan ohituta, Euskal Herriko jendea itxiagoa baita”. Orain oso gustora bizi da hemen, bertako giroa ezagutu, ulertu eta integratu ondoren. Familia ere bertakoa du, andrea eta bi seme alaba: Ainhoa eta Asier.

■ **Egoerari irtenbideren bat ikusten al diozu?**

Gauzak errotik aldatu behar lukete. Lehengo politikariek jarraitzen dute oraindik ere, gauzak oso gaizki egin dituzten arren. Argentinako aberastasunaren erdia kanpo zorraren interesak ordaintzeko erabiltzen da. Boterea hartzen duenak *fondo monetarioari* ordaindu ez, edo urte batzuetako itxaronaldia eskatu beharko lioke.

Botereko nahaste hau militarrentzat tentazioa izan liteke, edo agian zerbait berrira hasteko aukera! □

UDAL EUSKALTEGIA

Txirrita-Pello Errota desafiorako afari txartelak salgai

10garren urteurrena ospatzeko ekitaldiak antolatu ditu Udala euskaltegiak. Lehena Txirrita eta Pello Errota bertsolarien arteko desafioa izango da, otsailaren 22an, Eizmendi sagardotegian. JM. Irazu eta U. Agirre ariko dira bertsotan, Joxan Goikoetxeak musikaz lagunduta. Afari txartelak bihar jarriko dira salgai: Aralar, Oindi, Lete eta Irrintzin eta Udala Euskaltegian. □

Igerilekuan jokuak gaur umeentzat

IGERILEKUKO bi kale umeek jolas egiteko egokituko dituzte gaur, monitore eta guzti. Jolas egiteko gogo duenak agertu besterik ez du, goizeko 10:30etatik 12:30ak bitartean. □

Urumeako Iñude eta Artzaien festa gaur

URUMEA ikastolak 9garrengoz egingo du Iñude eta Artzaien festa. Eguerdiko 12:00etan ikastolatik irten, eta Latsunbeto futbol kanpora. Ekitaldia Latsunben izango da. □

■ **ERRUGBIA**

Hernanik Bilbon jokatuko du gaur

SAILKAPENEN 5garren postua sendotzera joango da Hernani Bilbora. Bizkaitarrak postu bat atzetik dituzte, 6garren. Gaur, 12:00etan.

■ **WATERPOLOA**

Hernani B-Urbat gaur Kiroldegian

EUSKAL herrikoak deskantsu hartu eta Gipuzkoako liga hasiko da gaur, 13:00etan kiroldegian. □

SANTA BARBARA
PEUGEOT




Tailerrak: Larramendi 15 - Exp: Arantzazu 15 - Tel. 943 551 139 - 943 551 979

Auto eta furgoneta zaharrak, 2. eskuko ez aldatzen ditugu

Peugeot 306	XSD	10.066,95 euro
Peugeot 106 - 5 ate	Diesela	4.056,83 euro
Peugeot 205 - 5 ate	1.4	3.485,87 euro
Ford Scort - 5 ate	16 balbula-gorria	3.305,57 euro
Citroen AX - 5 ate	Diesela	2.343,95 euro
Seat Ibiza - 3 ate	Diesela	2.253,80 euro
VW Polo G.T.	1.3	1.803,04 euro
Seat Malaga 4p.	1.5	1.682,83 euro
Ford Escort	Diesela	1.652,78 euro
Peugeot 309	1.6	1.141,92 euro
Peugeot 205 5p.	Gasolina	1.021,72 euro

MARI FA
ARRANDEGIA



Nagusia 36
943 55 04 89

Orkolaga 17
943 55 27 41

HERNANI

Ibai mendi
Kirolak

Nafar kalea 23
Tel: 943 333724
HERNANI



Ibai mendi

Arantza, mendia, kirol materiala...

Merkealdietan prezio bereziak:

- GORE - TEX BOTAK 9.990 pta
- XIRA INPERMEABLE TRANSPIRABLEA 14.990 pta tik
- COLUMBIA FORROAK 9.990 pta tik
- COLUMBIA ALKANDORA 3.500 pta (-%50)
- MENDI eta ESKIATZEKO GALTZAK (-%20)
- ZAKU eta MOTXILA ESKAINTZA.

Marka hauek aurkituko dituzu gure dendan:
TRANGO, GRIFBONE, EIDER, SALOMON, BESTARO, TUKLAND, LINE 7, ...

GURUTZ ARROSPIDE ATXILOTU DUTE BORDELEN

'Askatasunak' atxiloketak gaitzetsi eta konponbide demokratikoa eskatu du

■ 'Askatasunak' asanblea eta kontzentrazioak egin ditu azken hiru egunotan.



Ezkerrean, ostiraleko manifestazioa Kardaberaz kalean. Eskubian, Gurutz Arrospide.



ASKATASUNA erakundeak asanblea eta kontzentrazioak egin ditu egunotan Gurutz Arrospide hernaniarra eta beste bost pertsona atxilotu izana salatzen. Ostegunean atxilotu zuten Arrospide eta Parisen dago Frantziako poliziaaren eskutan. Ostiralean egindako

asanblean Hernaniko Askatasunako bozeramalearen hitzetan "operazio honen aurrean gure gaitzespenik gogorrena agertu nahi dugu" esan zuen. Bide polizialak arazoa ez duela konponduko azpimarratuta, gatazkak konponbide demokratikoa behar duela aldarrikatu

zuen eta ezker abertzalea prest dagoela bide horretan pausoak emateko.

Askatasunak EAJ-ren kontrako hitzak izan zituen eta Euskal Herriarekiko duen politika aldatzeko eskatu zion.

Asanblea ondoren manifestazioa egin zen. □

Umeentzako tailerrak bihar hasiko dira Ereñotzun

■ Ostegunean Latsunbe, Sorgintxulo, Elizatxo, Portu eta Osiñagako umeen txanda da ■ Ostiralean, Zikuñaga, Karabel, Akarregi, Florida eta Antziolakoena.

UMEENTZAKO tailerrak antolatatu ditu udalak Hernaniko auzotan. Tailerren helburu nagusia umeek auzoan leku eta denbora propioa izatea da. Euskera indartu eta auzo elkarrekin parte hartzea ere bilatu nahi da tailerrek. Bihar, ostegun eta ostiralean izango dira lehen tailerrak, 18:00etatik 20:00etara.

'Artetik' taldeak Artetik taldea da gaztetxoentzako tailerrak prestatzeko arduraduna. Pello Coello Artetikoko arduradunaren hitzetan "tailerrak ikuspuntu ludiko batetik enfokatuko dira, umeek gauzak jolas bidez ikasi ditzaten". Pintatu, zeramika, jokuak... denetik egingo dute, baina, ondo pasatzeko helburuarekin.

"Auzoetako giroa piztu" Pellok dio auzoetako giroa itzali egin dela, eta berreskuratzen saiatu nahi dutela. Horretarako oso garrantzitsua omen da gurasoen eta auzo elkarrekin inplikazioa eta oraingoz erantzuna oso ona izan da.

Oraingoz 100 ume inguruk eman dute izena, eta atek zabalik daude. □

■ FUTBOLA

Hernanik 2-0 galdu Pasaian

HERNANIK ezin emaitza onik ekarri Pasaian. Hortarako meritua egin arren, ez zuten zortirik izan. Partiduak denetik izan zuen, markagailua pasaitarren alde 1-0 zegoenean Hernanik penaltia huts egin zuen. Orduko bat gutxiagorekin ari ziren jokatzeko eta egoera horrekin, ezin berdintzerik lortu. Azkenean 2-0. □

■ BOLEIBOLA

UPV Hernanik larri irabazi zion UPV Bizkaiari, 3-2

AURTENGO partidurik estuena izan zuen UPV Hernanik, UPV Bizkaiarekin. Hasiera ona egin zuten hernaniarrek eta 2-0 jarri ziren aurretik. Hortik aurrera lo hartu eta bizkaitarrek bina berdindu zuten. Desentente jokoan, hortzak estutu eta etxeok irabazi zuten. □

■ BOLA

Idiazabalen gaur Erregularitate txapelketa

HAMABI tiraldik osatzen dute Erregularitate txapelketa. Bederatzi onenek Euskal Herriko txapelketa jokatu dute, gero. Gaur izango da Erregularitate txapelketako bigarren tiraldia, Idiazabalen. Joxe Ugalde eta Joxe Mari Usabiaga hernaniarrek 3 eta 8garren dihoaz. □

■ PELOTA -Euskal Herriko Txapelketa-



Martinez eta Manzisidor ezkerrean, jueza eta Intxaurrendokoak.

Manzisidor-Martinez eta Alvarez-San Sebastian, semifinaletara

■ Hoz-Lujanbio jubentzek 30-23 galdu zuten, baina finalaurrekoetan dira, oraindik ligila bukatu ez bada ere.

EUSKAL Herriko txapelketa-partiduak ziren atzo kiroldegian. Goiatz Manzisidor eta Amaia Martinezek 30-9 irabazi zioten Intxaurrendori eta finalaurrekoetan dira. Unai Al-

varez eta Ioritz San Sebastianek 22-11 irabazi zioten Altsasuri. Mikel Arrieta da finalaurrekoetatik kanpora gelditu dena, 22-11 galdu baitzuen atzo Gure Txokoren kontra. □



Parte hartzaile eta ikusle asko izan zen bakailu txapelketan.

AEK txotx jendetsua izan zen atzo

JENDE ugari bildu zen atzo AEK Txotx egunean. Goizetik Gudarien plazan artisau azoka izan zen. Arratsaldean bakailu lehiaketarekin hasi zen giroa pil pilean jartzen. 20:30ak aldera, berriz, 1.700 lagun joan ziren sagardotegietara aflatzera. Hortik aurrera, sagardoa, musika eta festa goizalderarte. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ☎ Taxiak: 943 550093
- ☎ Udaltzaingoa: 943 333288
- ☎ DYA: 943 464622
- ☎ Autobusak: 943 556662
- ☎ Anbulatorioa: 943 557750
- ☎ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ☎ Egunez: Bilbao Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941
- ☎ Gaez: Bilbao Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941

ESKERTZA

MANUELA IRAOLA OSTOLAZA Asteartean hil zen.



Manuelaren senitartekook eskerrak eman nahi dizkizuegu, modu batera edo bestera egun hauetan gurekin egon zeratenoi eta hiletara etorri zineten guztioi.

GUZTIAGATIK MILA ESKER.
Hernanin 2002ko otsailaren 3an.

IRAGARKI MERKEAK

Klase partikularrak ematen ditut. DBH arte asinatura guztiak. Interesatuak deitu: 636170817 Itzalai.

Etxeko lanak egin edo/eta umeak eta edadetuak zainduko nituzke. Harremanetan jartzeko: 652-743666

Maite Iribarren Kinesologa

TRATAMENDU:

- ESTRUCTURALAK (GIHARRAK, ORNOAK, ARTIKULAZIOAK,...)
 - PSIKO-EMOZIONALAK
 - KIMIKO-NUTRIZIONALAK
- Juan de Urbieta 7 - 6.C
Tel. 943 553 948 - HERNANI

KINESIOLOGIA

ZER DA? Edozein lesio, oinaze edo desorekaren jatorria aurkitu eta tratatzea ahalbidetzen duen sistema da.

NOLA? Test-muskular sentzioen bidez, pertsonaren gorputza eta barne-arazoak komunikatzen ditu.

Pertsona bakarra eta diferentea den neurrian, tratamenduak ere bakoitzaren behar eta nahietara egokitzen dira.

